



IRIZPEN ZK.: D19-003

UDALTZAINGOAK SARE SOZIAL BATEN BIDEZ ZABALDUTAKO IRUDIETAN DATU PERTSONALAK DAUDEN ARGITZEKO EGINDAKO KONTSULTAREN GAINEKO IRIZPENA

AURREKARIAK

LEHENENGOA: Datuak Babesteko Euskal Bulegoan (DBEB) [...] Udalaren kontsulta bat jaso dugu goiburuan adierazitako gaiari buruz.

Hona idazkiak zioena, besteak beste:

“Partikular batek kexa bat aurkeztu du, eta eskatzen du argitalpen bat kentzeko [...] Udaltzaingoaren Twitter sare sozial ofizialetik, esanez mezuak eragin okerra duela bere bezeroarengan, uste duelako kalte egiten diola bezeroaren pribatutasunari eta pertsona moduan ere bai. Beraz, honakoa eskatzen dut:

Argitalpen horren egokitasunaren gaineko balorazioa egiteko, datu pertsonalak agerian uzteari dagokionez, eta ea arloko araudia urratzen duen edo ea arauak bete diren eta argitalpena bere horretan utz daitekeen”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.

KONTUAN HARTZEKOAK

I

Kontsultan esaten da Udaltzaingoak 2014an erabaki zuela, komunikazio estrategiaren baitan, komenigarria zela “zerbitzuaren egunez eguneko jardueraren gaineko informazioak sortzea zerbitzuaren irudiari balioa emateko eta aldi berean baliagarriak izateko erakusteko delituzko jokabideak eta jokabide antisozialak eta horien ondorioak, gertaera garrantzitsuen berri emateko, autobabeseko aholkuak emateko, prebentzio kanpainak egiteko eta alerta meteorologikoak jartzeko, beste gai batzuen artean”.



Eta estrategia horren barruan Udaltzaingoak argudiatzen du “denbora guzti honetan 4.913 mezu argitaratu dituztela [...] Udaltzaingoaren Twitterreko kontu ofizialean, eta ez dutela kexa bat ere jaso datu pertsonalen urraketagatik”.

Kontsultan aipatzen den kasuan Udaltzaingoak eginbideak ireki zizkion ibilgailu baten gidariari ustez segurtasunaren aurkako delitu bat egiteagatik, Udaleko segurtasun kamerek grabatu egin zutelako egin zuena. Udaltzaingoak erabaki zuen komenigarria zela **grabatutako irudi horietako batzuk** Twitterreko kontuan argitaratzea “dibulgazio eta prebentzio asmoarekin, alkohola eta drogak hartu eta gero motordun ibilgailuak gidatzeari garrantzia kentzeak dakartzan ondorio larriak direla eta”. Eta irudiekin batera lau mezu jartzea ere bai, bi euskaraz eta bi gaztelaniaz. Hona hitzez hitz mezuak:

“Conductor citado a juicio por circular bajo la influencia del alcohol, hacer trompos, llevar el maletero abierto y tratar de darse a la fuga hasta ser interceptado./ Este tipo de conductas no solo ponen en peligro tu vida sino la del resto de conductores y peatones. Si vas a conducir no consumas alcohol ni drogas/ “Gidari bat epaiketara zitatua alkoholaren eraginpean zibarenak egin, maletategia irekita eraman eta alde egiteagatik./ Holako ekintzek norbere buruaz gain, gainontzeko gidari eta oinezkoen bizitza ere arriskuan jartzen dute. Gidatzera bazoaz ez hartu alkoholik ez drogarik”.

Udaltzaingoak adierazi digunez, mezu eta irudi horiek eskuragarri daude honako url helbideetan: [...]

Udaltzaingoak bide segurtasunaren aurkako ustezko delituan parte den pertsonaren idazki bat jaso du, eta bertan dio irudi horiek sare sozialetan zabaltzea kaltegarria dela bere pribatutasunerako, bere ustez ibilgailua ezaguna delako komunitatean, bai eta udalerriko bizilagunen artean ere; eta argi dagoela erraza dela ibilgailua, gidaria eta aipatu dugun gertakaria lotzea; eta, beraz, horrek kalte-galerak ekarri dizkiola, zertan jasan ez dituenak; eta eskatzen du argitalpena kentzeko.

Udaltzaingoak honakoa argudiatu du kontsultan:

“Testua eta irudiak aztertu eta gero, Udaltzaingoak honako uste du:

- *Ez da eman gertakarian parte hartu zu(t)en pertsonaren edo pertsonen datu pribaturik.*
- *Ez da eman inoren identitatea ondorioztatzeko moduko daturik.*
- *Ez da eman ibilgailuaren markari, modeloari edo identifikazioari buruzko daturik, eta irudiak ikusita ere ezin da hori dena ondorioztatu, ez eta ibilgailuaren barruan dagoen edo dauden pertsonak zein diren ere.*
- *Jokabidea egin zuenaren helbidea gutxienez 3,5 km-ra dago harrapatu zuten tokitik eta hirigunetik urruti dagoen urbanizazio batean.*
- *Populazioari buruzko datuak ikusita, [...]k 17.000 biztanle baino gehiago ditu, eta ia 11.000 ibilgailu ditu erroldatuta”.*

2016ko apirilaren 27ko Datuak babesteko Erregelamendu Orokorraren 4. artikuluan dator datu pertsonalaren definizioa:

“1) «datu pertsonalak»: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari,



genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago”.

Erregelamendu Orokorraren 26. kontuan hartzekoak definizioari buruzko honako zehaztapenak egiten ditu:

*“Pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri bati buruzko informazio guztiari aplikatu behar zaizkio datuen babesaren printzipioak. Datu pertsonal seudonimizatuak, informazio gehigarria erabiliz pertsona fisiko bati egotz baitakizkioke, pertsona fisiko identifikagarri bati buruzko informaziotzat jo behar dira. **Pertsona fisiko bat identifikagarria den zehazteko, kontuan hartu behar dira tratamenduaren arduradunak edo beste edozeinek pertsona fisiko hori zuzenean edo zeharka identifikatzeko erabil ditzakeen baliabide guztiak, hala nola singularizazioa. Pertsona fisiko bat identifikatzeko baliabideak erabiltzeko arrazoizko probabilitaterik dagoen zehazteko, faktore objektibo guztiak hartu behar dira kontuan, hala nola identifikatzeko beharko liratekeen kostuak eta denbora, kontuan hartuta tratamenduaren unean eskuragarri dagoen teknologia zein teknologiaren aurrerapena.** Horrenbestez, datuen babesaren printzipioak ez dira erabiliko informazio anonimoarekin, hau da, pertsona identifikatu edo identifikagarri batekin loturarik ez duenarekin, ezta interesduna identifikagarria ez izateko edo identifikagarri izateari uzteko moduan anonimo bihurtu diren datuei. Ondorioz, erregelamendu honek ez dio eragiten informazio anonimo horren tratamenduari, ezta estatistika edo ikerketa helburuetarako badira ere”.*

Datu pertsonala zer den zehaztu eta mugatu ostean, Bulegoak uste du Udaltzaingoak Twitter sare sozialean argitaratutako irudietan eta mezuetan ez dagoela ezer pertsona fisiko jakin bat identifikatzen duenik edo identifikagarri egiten duenik. Egia bada ere, irudietan ibilgailuaren kolorea ikus daitekeela eta erraza litzatekeela ibilgailuaren marka eta modeloa ondorioztatzea, beste informazioren bat beharko zen gidaria identifikatzeko; izan ere, argitalpenean ez baita antzematen gidariaren irudirik eta kotxearen matrikularik, eta ez dirudi ezaugarri berezirik duen ibilgailua denik, erraz zehazteko moduan.

Esandako guztiarekin bat, ondorioztatu behar da Udaltzaingoak sare sozialean argitaratu dituen irudiak eta mezuek, hau da, kontsultako gaia izan diren irudiak eta mezuek ez dutela datu pertsonalak babesteari buruzko araudia urratzen, tratatutako informazioak ez duelako pertsona fisiko jakinik identifikatzeko balio, ez zuzenean ez zeharka.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 12a